

Kurtzeako jolas-parkea umeek esleitu dute

Irailak 27 dituenean abiatu da Lezamako Umeen Kontseiluaren ikasturte berria. Helburu handi bat genekarren bilera honetara, izan ere Jon Ander Aurrekoetxea Alkateak Kurtzean egin behar den jolas-parkera aurkeztu diren lau proiektuen artean aukeratzeko eman behar zien Leukoko umeei. Uda aurretik parke horretan zer egotea nahi zuten Leukori galdetu zion, eta esan zioten tirolina bat egon behar zela "bai ala bai" ... eta beste zenbait irizpide. Irizpide horien arabera zenbait enpresari proiektuak eskatu zitzaizkien gero, eta proiektu horiek aurkeztu dituztela, orain bueltan datoz umeei horien artean aukeratu dezaten zein nahi duten. Hori partehartze prozesua!



Aukeraketaren une horri heldu baino lehen, ordea, tarte bat eman nahi izan diogu leuko taldeari, ongietorriak eman, Leire hezitzaile berria umeei aurkeztu eta dinamika gozagarri txiki bat egin: *Udako gorputzaldia* ekarri nahi izan dugu iraila bukaera honetara, eta uda honetan gertatu zaizkigun *momentazo* hoiek gogoratu nahi izan ditugu, gure ongizatearekin, hazkuntzarekin eta gure lekuarekin zerikusia dutelako seguraski betirako gordeko ditugun udako bizipen garrantzitsu horiek. Gure desioekin konektatzen gaituzte eta beraz baita nahi dugun herriarekin ere... Dela asko gustatu zaigun leku batetan egon garela eta hango zerbait ekarri nahi dugula Lezamara... edo bilera honetara... Dela Lezaman bertan egon garela eta primeran pasatu dugula halako lekutan... ala aspertzen ari ginela lagun batekin izan genuen elkarrizketa batean zer egin nahi genukeen atera zela... edo bizikletekin ezagutzen ez genuen leku batetara joan ginela... Edo lehendabiziko aldiz egin genuela zerbait... Abenturaren bat... Halako gauzak!

12:30etan Jon Ander Alkateagaz batera Alaitz Artetxe EH-Bilduko zinegotzia eta Aitzol udal-aparejadorea etorri dira. Hiruren artean aurkeztutako lau proiektuen nondik norakoak azaldu dizkiete, eta umeei bakoitzari buruzko oharrak hartu dituzte. Ondoren umeei hartu dute hitza eta bakoitzak zein proiekturen alde egiten duen eta zergatik azaldu dute. Argiago ikusteko, zutundu eta gustuko proiektuaren ondoan jarri da ume bakoitza. Lau proiektuek zeukaten aldeko pertsonaren bat, beraz ezin bat ere alde aurretik alboratu. Nola lortu guztien arteko adostasuna? Bakoitzak berea saldu die besteei baina adostasunik ez zen ailegaten eta bozka ekidin nahi genuen ahal izanez gero.



Gakoa non egon zitekeen ikusita, Alkateak proiektuetako bati aldaketatxo bat egiteko aukera aipatu die, nahiz hasiera batean proiektu itxiak ziren, baina aurrekontuari nabarmen eragingo ez zion aukera bat egitea proposatu die: izan ere, umeei beste proiektu batzuetan ikusten zuten kilin-kalarako otzara handia nahi baitzuten, gustokoago zuten proiektu horretan zeuden kilin-kala txikien partez. Azkenean, otzara hori sartuta, Leukoko ume guztien adostasuna lortu da Gatikako enpresa batek egindako gaztelu moduko proposamena onartzeko.

...Gabonetarako amaituta egon dadin saiatuko direla agindu die Alkateak umeei. Parke berezia izango da Kurtzeako hori: herriko umeei erabakitako parkea. Zorionak eta eskerrik asko guztiei!

Hemen ikus eta jaitsi ditzakezue bilera honetako argazkiak:
<https://flic.kr/s/aHsmHpc8fE>